



5. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA, 2008ko maiatzaren 6an izandakoa.

TOKIA: Pasaiako hirian eta bertako udaletxean.

DATA: Bi mila eta zortziko maiatzaren seian.

BERTARATU DIRA:

Ander Poza Olabide j.
Iñaki Garmendia Agirregabiria j. eta
Obdu Lorenzo de Dios

Burua:

Maidier Ziganda Población, alkatea.

Lehenengo deialdian, Maidier Ziganda Población alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Ez dute bere ezin etorria justifikatu Edurne Baztarrika Bilbao andreak eta Alvaro Ricón Rivera jaunak.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 8:45ean bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

1.- Kontu eta fakturen zerrenda: 2/08.

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontu eta fakturak onartzea erabaki du:

3/08 zka.



Zenbatekoa: LAUREHUN ETA HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA HIRU ZENTIMO (412.843,03 euro).

2.- Jubilatuen Etxeei dirulaguntzak.

Jubilatuen etheen 2008ko jardueretarako diru-laguntza eskaerak aztertu ondoren, eta gizarte-laguntzaileren txostena aintzat hartua, 2008ko apirilaren 24ko Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkariaren proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Ondoren aipatzen diren jubilatuen etxeei, “Zaharren biltokientzako udal diru-laguntza” 04.481.456.10.03 kontu-sailetik diru-laguntzak banatzea. Guztir 30.500 €, aurkeztutako ekintzei dagokien lehenengo ordainketa gisa.

AITONEN ATERPEA -Pasai Donibane-	8.000 €
ZAHARREN BILTOKIA -P.San Pedro-	6.500 €
ZAHARREN BILTOKIA -P.Antxo-	8.000 €
HOGAR DEL JUBILADO-Trintxerpe-	8.000 €

Hori guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko A-412/08 baimendutik ordainduko da.

3.- Oartzualdeko Hedabideak E.M.ri dirulaguntzak.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez eta Euskara Batzordearen Lehendakariak 2008ko apirilaren 4an egindako proposamena aztertuta

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- OIARTZUALDEKO HEDABIDEAK E.M.ri (Oarsoaldeko Hitza eguneroko prentsa idatzia) 12.000 euroko diru-laguntza ematea “10.481.455.10.01 euskararen aldeko jarduerentzako dirulaguntzak” kontu-sailetik eta indarrean dagoen udal aurrekontuko A-404/08 baimendutik ordainduko da.

BIGARRENA.- Interesdunari erabaki hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.



- Gai-zerrendatik kanpo eta bertaratutako zinegotzi guztien aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartu ditu:

4.- 1. Ziurtapena: “Udaltzaingoan emakumeentzako aldagelak egitea”.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, honako ziurtagiria onartzea erabaki du:

1. zenbakia.

Obra: Udaltzaingoan emakumeentzako aldagelak egitea.

Enpresa kontratista: AMUITZ BERRIKUNTZAK

Obra-zuzendariak: José j. Michelena

Zenbatekoa: HOGETA LAU MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (24.697,62 euro).

Honako xedatutik ordainduko da: indarrean dagoen aurrekontuko D-1544/07.

Eta aztertzeke beste gairik ezean, 9:05ean amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, jarduneko idazkariak, akta hau egiten dut, alkatearen oniritziarekin.